**Ayuntamiento de Garralda**
**Garraldako Udala**
P3111400B
Arostegi plaza, 1 - 31693 Garralda
ayuntamiento@garralda.es
udala@garralda.es

Garraldako Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hogeita lauko urriaren hogeita hiruan, eguerdiko ordu batean, Udalbatzak bilkura berezia eta premiazkoa egin du, lehenengo deialdian, indarrean dagoen arautegiak eskatutako gutxieneko partaideak elkartu direla. Bilkura alkate jaunak zuzendu du, jarraian adierazitako zinegotziak bertaratu dira eta idazkariaren aholkularitza izan dute.

Bildutakoak:
Alkate anderea: Begoña Munárriz Guezala
Zinegotzi jaunak: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte.

Honakoak dira aztertutako GAIAK:

**LEHENA.- BILKURAREN PREMIA BERRESTEA.**

Udalbatzako idazkariak, bilkura irekitzat jo ondoren, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 7.1 artikulua irakurri du. Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

"1. Osoko bilkuretarako deialdia lehendakariak eginen du, gutxienez, bilkura egiteko aurreikusitako eguna baino bi egun baliodun lehenago. Bilkura berezietarako, deialdia presazkoa bada, ordea, Osoko Bilkurak berretsi beharko du, gehiengo soilez."

Bada, bozketa egin da, eta bertaratutakoek aho batez berretsi dute bilkura premiazkoa dela.

**BIGARRENA.- GARRALDAKO UDALARI ZUZENEKO DIRULAGUNTZA EMATEA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HILTEGIA ERABERRITZEKO ETA BERRIZ IREKITZEKO BIDERAGARRITASUN AZTERKETA EGITEKO.**

2024ko urriaren 18an, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak prestaturiko hitzarmen proposamen bat jaso da, Garraldako Udalari zuzeneko dirulaguntza bat ematea arautzen duena, hiltegia eraberritzeko proiektua idazteko eta hura berriro irekitzeko bideragarritasun azterlana egiteko.

Hitzarmen honen xedea da Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez Garraldako Udalari dirulaguntza bat zuzenean emateko oinarriak ezartzea, eraberritze proiektua idazteko eta Garraldako hiltegia berriro irekitzeko bideragarritasun azterlana egiteko.

Hitzarmen horretan aipatzen den jarduera garatzeko, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak gehienez 50.000 euroko zenbatekoa emanen dio Garraldako Udalari, 2024ko Gastuen Aurrekontuko 210002-21400-7609-922104 partidaren kargura. Partida hori "Garraldako Udala-Hiltegia Hitzarmena" izenekoa da, eta udalak aurkeztutako proiektuaren % 100era iritsiko da.

Hitzarmenaren edukia aztertu ondoren, eta gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

1. Garraldako Udalari zuzeneko dirulaguntza bat ematea arautzen duen hitzarmena onartzea, hiltegia eraberritzeko proiektua idazteko eta hura berriro irekitzeko bideragarritasun azterlana egiteko.

2. Ahalmena ematea Begoña Munárriz Guezala alkate andreari, Garraldako Udalaren izenean eta ordezkaritzan hitzarmen hori sinatzeko.

3. Jakinaraztea hitzarmen honen xedea dela Garraldako hiltegia berriro irekitzeko eraberritze proiektua egitea eta bideragarritasun azterlana idaztea eta Garraldako Udalak ez duela gerora horren emaitzaren inguruan har daitekeen beste konpromisorik izanen.

4. Akordio hau Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

**HIRUGARRENA.- HILTEGIA ERABERRITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ETA BERRIZ IREKITZEKO BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO ZERBITZU-KONTRATUA LIZITATZEKO ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA, HALA BADAGOKIO.**

2024ko irailaren 24an egindako bilkura berezian, Garraldako Osoko Bilkurak onetsi zuen Garraldako hiltegia berriro irekitzeko eraberritze proiektua eta bideragarritasun azterlana idazteko zerbitzu kontratua lizitatzea, prozedura irekiaren bidez, eta kontratazioa arautzen duen baldintza plegua agiria onartzea eta lizitazio-prozesua Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez izapidetzea.

Irailaren 25ean argitaratu zen aipatutako zerbitzu kontratuaren lizitatzeko iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian (PLENO), eta eskaintzak aurkezteko epemuga iritsi ondoren, lizitatzaile batek ere eskaintzarik aurkeztu gabe, deialdia hutsik geratu zen.

Horrenbestez, eta aipatutako zerbitzu kontratua esleitze aldera, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

1. Luzatzea hiltegia eraberritzeko proiektua egiteko eta bideragarritasun azterlana idazteko zerbitzu kontratuaren lizitaziorako eskaintzak Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez aurkezteko epea.

**LAUGARRENA.- UDALAREN ETA GARAITZEKO ASI KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Garaitzeko Asi Kultur Elkarteak Garraldako Udalarekin lankidetza hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu du.

Hitzarmen horren helburua Garraldako Udalaren jabetzako lokalak elkartearentzat inolako kargurik gabe erabiltzea da, hitzarmenaren 1. eranskinean deskribatzen diren jarduerak garatzeko.

Hitzarmenaren edukia aztertu ondoren, eta gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

1. Udalaren eta Garaitzeko Asi Kultur Elkartearen arteko lankidetza hitzarmena onartzea.

2. Ahalmena ematea Begoña Munárriz Guezala alkate andreari, hitzarmen hori sinatzeko, Garraldako Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

3. Erabaki hau interesdunei helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko arratsaldeko ordu biak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

**Ayuntamiento de Garralda**
**Garraldako Udala**
P3111400B
Arostegi plaza, 1 - 31693 Garralda
ayuntamiento@garralda.es
udala@garralda.es

En la Sala Consistorial del Ayuntamiento de GARRALDA, siendo las trece horas del día veintitrés de octubre de dos mil veinticuatro, se reúne la Corporación Municipal en sesión extraordinaria y urgente, en primera convocatoria, con el quórum exigido por las disposiciones vigentes, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, con la presencia de los Concejales que se especifican a continuación, asistidos por la Secretaria, Tratándose los siguientes puntos del ORDEN DEL DÍA:

Asistentes:

Sra. Alcaldesa: Begoña Munárriz Guezala

Sres. Concejales: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte.

**PRIMERO.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA SESIÓN.**

La Secretaria de la Corporación, una vez declarada abierta la sesión, da lectura al artículo 7.1 de la Ley Foral de Administración Local, que establece lo siguiente:

*"1. La sesiones plenarias serán convocadas por el Presidente, al menos, con dos días hábiles de antelación a la fecha prevista para realizar la sesión, salvo las extraordinarias que lo sean con carácter urgente, cuya convocatoria con este carácter deberá ser ratificada por el Pleno, por mayoría simple."*

En este sentido, sometida a votación, por unanimidad de los presentes queda ratificada la urgencia de la sesión.

**SEGUNDO.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA CONCESIÓN DE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA AL AYUNTAMIENTO DE GARRALDA PARA LA REHABILITACIÓN DEL MATADERO Y EL ESTUDIO DE VIABILIDAD PARA LA REAPERTURA DEL MISMO.**

Con fecha 18 de octubre de 2024 se ha recibido una propuesta de convenio por parte de la Dirección General de Administración Local y Despoblación del Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra, por el que se regula la concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Garralda para

la redacción del proyecto de rehabilitación del matadero y el estudio de viabilidad para la reapertura del mismo.

El objeto del presente convenio es el establecimiento de las bases reguladoras para la concesión directa de una subvención a través de la Dirección General de Administración Local y Despoblación al Ayuntamiento de Garralda para la redacción del proyecto de rehabilitación y el estudio de viabilidad para la reapertura del matadero de Garralda.

Para el desarrollo de la actividad a que se hace mención en el citado Convenio la Dirección General de Administración Local y Despoblación aportará al Ayuntamiento de Garralda un importe máximo de 50.000 euros con cargo a la partida 210002-21400-7609-922104 denominada “Convenio Ayuntamiento Garralda-Matadero” del Presupuesto de Gastos de 2024, que alcanzará el 100% del proyecto presentado por ésta.

Habiendo estudiado el contenido del convenio y tras la oportuna deliberación, el Pleno ACUERDA por unanimidad:

5. Aprobar el convenio por el que se regula la concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Garralda para la redacción del proyecto de rehabilitación del matadero y el estudio de viabilidad para la reapertura del mismo.

6. Facultar a la Sra. Alcaldesa Dª. Begoña Munárriz Guezala para la firma del citado Convenio en nombre y representación del Ayuntamiento de Garralda.

7. Transmitir que la firma del presente convenio se fundamenta exclusivamente en la redacción del proyecto de rehabilitación y estudio de viabilidad para la reapertura del matadero de Garralda, no quedando sujeto el Ayuntamiento de Garralda a ningún otro compromiso que se pueda adoptar con posterioridad en relación al resultado del mismo.

8. Dar traslado del presente Acuerdo al Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

**TERCERO.- AMPLIACIÓN, EN SU CASO, DEL PLAZO DE PRESENTACIÓN DE OFERTAS PARA LA LICITACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA REDACCIÓN DEL PROYECTO DE REHABILITACIÓN Y ESTUDIO DE VIABILIDAD PARA LA REAPERTURA DEL MATADERO.**

En Sesión extraordinaria de 24 de septiembre de 2024, el Pleno acordó aprobar la licitación, mediante procedimiento abierto, del contrato de servicios para la redacción del proyecto de rehabilitación y estudio de viabilidad para la

reapertura del Matadero de Garralda, así como el pliego de condiciones regulador de la contratación, y tramitar el correspondiente proceso de licitación a través del Portal de Contratación de Navarra.

Con fecha 25 de septiembre se publicó el anuncio de la licitación del contrato de servicios citado en el Portal de Contratación de Navarra (PLENA) y, tras haber alcanzado la fecha límite de presentación de ofertas sin que ningún licitador hubiese presentado oferta, la convocatoria fue declarada desierta.

En este sentido, y con objeto de adjudicar el mencionado contrato de servicios, el Pleno ACUERDA por unanimidad:

1. Ampliar el plazo de presentación de ofertas para la licitación del contrato de servicios para la redacción del proyecto de rehabilitación y estudio de viabilidad para la reapertura del matadero a través del Portal de Contratación de Navarra.

**CUARTO.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON GARAITZEKO ASI KULTUR ELKARTEA.**

La asociación Garaitzeko Asi Kultur Elkartea ha presentado propuesta para la firma de convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Garralda.

El señalado convenio tiene como objeto hacer uso de los locales titularidad del Ayuntamiento de Garralda sin cargo alguno para la asociación, para el desarrollo de las actividades que se describen en el Anexo 1 al convenio.

Habiendo estudiado el contenido del convenio y tras la oportuna deliberación, el Pleno ACUERDA por unanimidad:

1. Aprobar el convenio de colaboración con Garaitzeko Asi Kultur Elkartea.

2. Facultar a la Sra. Alcaldesa Dª. Begoña Munárriz Guezala para la firma del citado convenio en nombre y representación del Ayuntamiento de Garralda.

3. Dar traslado del presente acuerdo a los interesados a los efectos oportunos.

Y no habiendo más asuntos a tratar, se levanta la sesión siendo las catorce horas del día arriba indicado y se extiende la presente acta que yo, la Secretaria, Certifico.